U R T E B E R R I O N !

# KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
101. zenb. 2010eko abendua

## Josune eta Ixone
# TREN MAKINISTA

**Juan Martin Urreizti**
nekazaritza ekologikoan

**Okelar**
Bertsopaperak 2010

**Durangoko**
azokako nobedadeak

**Arno**
Bereziki Zaindu Beharreko Gunea

Egin dezagun urratsa

IFAR AUTO

AUTO KONPONKETAK
MARKA GUZTIAK

MEKANIKA OROKORRA
- ✔ lerrokadurak
- ✔ gurpilak
- ✔ olioa
- ✔ suspentsioak

ELEKTRIZITATEA
- injekzioa ✔
- diagnosia ✔
- aire girotua ✔
- argiak ✔
- elektronika ✔

Tel. 943 19 12 77 · Tel. eta Faxa 943 19 19 09 · e-mail: ifarauto@terra.es
Mijoa-Ikutzaran poligono industriala, z/g · 20830 MUTRIKU · Mutriku-Ondarroa errepidea

**Kalaputxi hilabetekarixa**

**2010eko abendua - 101 zenb.**

**Argitaratzailea:**
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

**Telefonoa:** 943 603468 / 635 748 393
**e-maila:** kalaputxi@topagunea.com
**Interneten:** www.kalaputxi.blogspot.com
**Laguntzailea:** Mutrikuko Udala
**Tirada:** 2.200 ale
**Lege Gordailua:** SS-787/01
**ISSN:** 1579-4792
**Inprimategia:** GERTU. Oñati
**Banaketa:** Kalaputxi

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin**

**Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa**

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa**

# aurkibidia

**Informaziua** 4
**Zeuk esan** *Irakurleen eskutitzak* 5
**Puri-purixan** *Nekazaritza ekologikoa* 6-7
**Bi hitzetan eta komikixa** 8-9-10
**Kirola** *Burumendi mendi elkartea* 11
**Aisialdixa** *Gabonetan Txantxangorrirekin* 12
**Karenka** *Iosune eta Ixone Euskotreneko tren-gidari* 14-15
**Gizartia** *Gabonetan ere presoak gogoan* 17
**Bertsoak** *Okelar bertsopaper sariketa* 18
**2011 urteko egutegia** 19
**Ingurumena** *Arno, Bereziki Zaindu beharreko Gunea* 20-21
**Kulturia** *Durangoko azkokako nobedade batzuk* 22-23
**Zorion agurrak** 24
**Argazki zaharrak** 25
**Agendia** *abendua-urtarrila* 26

# IRITZIXA

## ETORKIÑAK

Joan zen astean Bilboko kale nagusietako batetik nindoan oinez eta halako batean gorputz txarra utzi zidan zeozer ikusi nuen. Kale hartatik mutil gazte bat zihoan oihuka. Hasieran ez nion ulertzen esaten zuena, gero konturatu nintzen Afrika Afrika oihukatzen zuela. Mutil gazte hura beltza zan, iherra. Hotza eta euria egiten zuen, baina gerritik gora ez zeraman arroparik. Gainera, bere gorputza bendaz eta tiritaz josita zegoen. Bere oihuak hain sentiberak ziren... Halako batean udaltzainen patruila bat agertu eta paperak eskatu zizkioten, baina mutil hark ez zuen paperik; kotxean sartu eta eraman egin zuten. Zenbat eta zenbat etorkin dago gure artean paperik gabe? Eta paperik ez edukitzeak zer esan nahi du? Paperdunak baino gaiztoagoak direla? Gu baino gaiztoagoak akaso? Oso eztabaida sakona da etorkinen ingurukoa, are gehiago etorkin "ez legezkoen" ingurukoa. Urte batzuetatik hona gure herri eta hirietan hizkuntza eta kolore desberdinetako pertsonak bizi dira, eta gehienak etorkizun hobe baten bila etorritakoak, baina hona ailegatzean bizimodu gogorra topatzen dute. Ikuspegi etorkinen behatokiak egindako azken inkestaren arabera, euskaldunen ehuneko 15ek etorkinak gaizkileekin lotzen dituzte. Arriskutsua elkarbizitzarako honelako loturak egitea. Zalantzarik ez daukat, etorkin gehienak lanera eta bizimodu hobe bat edukitzeko etorri dira. Beste kontu bat da etorritakoan lanerako eta duintasunez bizitzeko topatzen duten aukera. Honen harira Manu Chaoren abesti bat gogoratzen dut: ez dago pertsona ilegalik, kontzeptu hori politikoa eta juridikoa besterik ez da.

**Karmele Elezgarai Ozkorta**

# intereseko telefonoak

## OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak .....943 46 11 11

## ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingoa.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa .....943 60 33 78
Posta zerbitzua .....943 60 30 44
Bake Epaitegia .....943 60 70 49
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

## IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea .....943 60 31 95
Mutrikuko Institutua .....943 60 36 27
Udal euskaltegia .....943 60 30 94
Musika eskola .....943 60 37 80
Haur eskola publikoa .....943 60 41 19

## GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anaiarte jubilatuen egoitza .....943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

## ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak .....902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua .....943 19 23 47

## BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia .....943 60 31 75
Gasolindegia.....943 60 32 10
Miruaitz Frontoia .....688 64 31 80

# Autobusak

## MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

| | | |
|---|---|---|
| **Mutrikutik** | Astegunak | 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30 |
| | Zapatuak | 10:00 / 16:30 |
| | Jai egunak | 10:00 / 19:30 |
| **Donostiatik** | Astegunak | 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30 |
| | Zapatuak | 11:30 / 19:30 |
| | Jai egunak | 11:30 / 20:30 |

## MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**ean hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

## DEBARA eta Debabarreneko herrietara

**Astegunetan**: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era

## ONDARROARA

**Astegunetan**: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era

# Trenak

**Tren guztiak**, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

| DEBA – DONOSTIA – DEBA | | DEBA – BILBO – DEBA | |
|---|---|---|---|
| **Debatik** | 6:44-7:44-…-21:44 | **Debatik** | 6:43 -7:43 -…-20:43 |
| **Donostiatik** | 5:47-6:47-…-20:47 | **Bilbotik** | 6:00 -7:00 -…-20:00 |
| Jai egunetan 8:44etan hasiko dira | | Jai egunetan 8:43etan hasiko dira | |

## DEBA – EIBAR – DEBA

| | | |
|---|---|---|
| **Debatik** | 6:43 / 7:43 / … / 21:43 | Jai egunetan, 8:43etan hasiko da |
| **Eibartik** | 6:13 / 7:13 / … / 21:13 | Jai egunetan, 8:13etan hasiko da |

# Zaintzako botikak (Mutriku eta Deba)

## ABENDUA

| | |
|---|---|
| **17tik 19ra** | **A. Zalduegi (1)** |
| **20tik 23ra** | **Lon Apraiz** |
| **24tik 26ra** | **Javier Otxagabia** |
| **27tik 30era** | **Amaia Zalduegi** |
| **31n** | **Hiart Burgoa** |

## URTARRILA

| | |
|---|---|
| **1 eta 2an** | **Hiart Burgoa (2)** |
| **3tik 6ra** | **Javier Otxagabia** |
| **7tik 9ra** | **Lon Apraiz** |
| **10etik 13ra** | **Hiart Burgoa** |
| **14tik 16ra** | **Amaia Zalduegi (1)** |
| **17tik 20ra** | **Lon Apraiz** |
| **21tik 23ra** | **Javier Otxagabia** |

**Zapatu goizean,**

**(1) Lon Apraiz**
**(2) Javier Otxagabia**

**APRAIZ.....630 05 50 97**
Erdiko kalea 5 - MUTRIKU

**ZALDUEGI.....669 26 22 01**
Lersundi 20 - DEBA

**OTXAGABIA..689 58 57 59**
Txurruka Tteak. 3 - MUTRIKU

**BURGOA..... 667 33 88 90**
Astillero 2 - DEBA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
Eguberri zoriontsu eta Urte berri on!

# gutunak

## ZE ESAN BIEU BAIÑA!

Betidanik aldarrikatu izan dugu herritar partehartze zuzena eta loteslea. Bi-hiru urte izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Kudeatuz" programaren berri izan genuela. Mutrikuko Aurrekontuen testuinguruan udal batzorde irikiak eta ezinbesteko partehartze zuzena behin eta berriz eskatu genuen, batez ere herriko gai potoloetan: Portu Berria, Mutriku-Sasiola, eta abar… Hau guztia osotasunezko informazio zehatza zabaltzearekin batera. Honen aurrean, Udalean agintean dagoen alderdia Foru Aldundiak aurrera eraman nahi zuen "Kudeatuz" kontzeptua azaldu zigun. Gure eskarietatik zertxobait urruti zegoen, eta aurrekontuetako eztabaidatik at gelditu zen. Dena dela, "pauso guztiak, txikiak izanda ere, aurrerakoiak izan daitezke" ideia hartuta gelditu ginen.

Pasa den urriak 25ean Mutrikuko Udaleko Alkatea eta Foru Aldundiko ordezkari bat GIPUZKOA PARTE HARTZEN programa aurkeztu zuten prentsan dagoeneko gure herriko eraikin publikoa den Komenduaren etorkizuna lantzeko asmoz.

Gure lehenengo harrera gazi-poza izan zen. Alderdi politiko berberak Eusko Jaurlaritzako Parlamentuan Portu Berriarekiko erreferendum baten aurka bozkatu zuelako bere momentuan. Honetaz gain, Foru Andundiko Batzar Nagusietan antzerako jarrera azaldu zuen Mutriku-Sasiola errepidearen inguruan. Errepide hau ez zen beraientzat eztabaidagarria. Ezta gure partetik aurkeztu genituen alternatibak ikertzea ere.

Dena dela, azaroaren 29ko Kudeatuz programa honen lehen batzarrak bildu zuen jendetza eta giro baikorra ikusirik poza berpiztu zaigu. Jendearen parte hartzeko gogoa nabaritu zen. Horixe da gure herriak behar duena gauzak aldatzeko. Azaldu ziguten bai, programa honen bitartez ateratako erabakiak lotesleak ez zirela izando, eta Udalean dirurik ez zegoela momentu hauetan inbertsiotan sartzeko. Hala ere, ez dugu etsi behar. Bertan jasotzen diren ekarpenak beren momentuaren zain geldituko dira paperaren gainean, eta honetarako ezinbestekoak dauzkagu heritarron ekarpenak. Atzera pausorik gabe.

Azkenik, Mutrikuko herrian eskainitako planteamendu ireki hau Gipuzkoa Aurrera bezalako elkarte bati era berean aplikatzea eskatuko genieke. Ikusita Gipuzkoa Aurrerak "kudeatzen" duen aurrekontua eta beraien partaideak (GFA, Gipuzkoako Ganbara, ADEGI, Kutxa, Mondragon Taldea…) ondo legoke herri mugimendu ezberdinei sarrera ematea. Orain arte ez daukatena.

**Berdeak+Independenteak Herri Plataforma**

## EUSKARAREN EGUNA ABENDUAREN 3AN BAKARRIK?

Azken urteotan hainbat ikerketa eta ebaluazio egin dira ikastetxeetan ikastereduen emaitzak aztertzeko. Eta horietan guztietan agerian geratu da egungo hizkuntz ereduen sistemak ez duela euskalduntzen. Horregatik, hezkuntza arloko eta euskalduntze arloko eragileak, eta euskal jendartea oro har, aspaldidanik ari dira eskatzen ereduen sistema gainditzea eta euskalduntzea bermatuko duen metodologia edo sistema ezartzea gure eskoletan (ikasle euskaldun eleanitzak bermatuko dituena).

Azken azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sailak egindakoa dugu ikastetxe publiko eta kontzertatuetako 37.000 ikasleren artean, LHko laugarren eta DBHko bigarren mailetan. Bertatik hainbat ondorio esanguratsu eta larri atera daitezke gainbegiratu azkar batean. Maila kaxkarrenari begiratzen badiogu, ikus dezakegu lehen hezkuntzan %27,1ek ez duela "hasierako maila" gainditzen, eta bigarren hezkuntzan % 33,5ek; D ereduan bertan, DBHn %22,5ek "hasierako maila" dauka, A ereduan berriz, hamarretik zortzi ikaslek ez du euskararen nahikoa ezagutzarik. Hizkuntzaren "maila aurreratuari" begiratzen badiogu, ikus dezakegu LHn % 29,2k ematen duela maila hori, eta DBHn soilik %24,1ek.

Isabel Celaa anderearen ustez, emaitza hauek 2009koekiko hobekuntza adierazten dute, baina agerraldian adierazi zuenez, eskolak ezin du izan euskararen ezagutza bermatzeko tresna bakarra, eta beste hainbat faktorek ere eragiten dute.

Hezkuntza Sailaren azterketa hau Euskararen Eguna gertu genuenean ezagutu genuen, eta honek aukera ematen digu azken hausnarketa hauek egiteko. Batetik, eskubideak ditugu (herri baten eskubidea bere hezkuntza sistema antolatzeko bere kultura eta hizkuntzaren transmisio eta garapena ziurtatuz; eta herritarren eskubideak, legeetan jasoak, euskaren ezagutza bermatua izateko). Bestetik, betebeharrak (administrazioen obligazioak bermatzeko euskalduntzen duen sistema, besteak beste). Eta azkenik, egin beharrak (euskaldunok geure eskubideak bermatuak izateko, administrazioekin bat eginda, edo ez egunero geure esparruan egin beharreko).

Euskararen eguna izan dadila, jendarteko beste esparruetan bezalaxe, eskoletan ere euskal hiztunon eskubideak aldarrikatzeko eguna, administrazioen jarrera salatzeko eta administrazioak behartzeko eguna, eta eskola komunitate osoa (ikasle, langile irakasle zein ez irakasle eta guraso) elkarrekin lanean jartzeko eguna. Hurrengo 364 egunak bezalaxe.

**LAB irakaskuntza**

**Herri osoaren aurrean adierazi nahi duzuna adierazteko txokoa**

bidali zure idatzia:

**kalaputxi@topagunea.com**
**edo**
**Luardo etxea, behean**

# NEKAZARITZA EKOLOGIKOA Juan Martin Urreiztiren eskutik

**Nekazal Ingeniaritza ikasten ari zirela ezagutu zuten elkar Juan Martinek eta Myriamek. Eskolan ikasitakoak, hala ere, ez omen zeukan inolako zerikusirik lurra ekologikoki lantzearekin, eta, beste hainbat zereginetan ibili ondoren, orain dela gutxi hasi dira lan-modu horretan. Myriamek lurrik gabeko baserritarra zela aitortu digu, baina Foru Aldundiaren Etorlur programari esker lortu du Elgoibarren lursail egoki bat. *Alboraz* izeneko soro eder bat hartu du 20 urterako errentan, eta hantxe hasi da barazkiak ekologikoki ekoizten. Juan Martinek, berriz, etxe ondoan bertan lantzen du baratzea, *Basailun*en. *EKOALBORAZ* izena aukeratu dute euren ekimen ekologikoa izendatzeko. Berriketaldi interesgarri bat izan dugu eurekin Arno mendia txapela zurituta agertu den lehen egunean.**

**Noiz hasi zinen, Juan Martin, ekologikoki lan egiten?**
Aspaldi. Aita barazkijale bihurtu eta mundu horretan sartzen hasi zenean. Elikadura osasuntsuak kezkatuta, *Basailun* etxea eraiki eta bertako baratza ekologikoki lantzen hasi zen gure aita. Garai hartan joan nintzen ni Zaragozara ikastera. Han ez ziguten, ordea, kontu ekologikorik aipatu ere egin ingeniaritzan, horrelakorik zenik ere ez. Baina poliki-poliki konturatzen zara ikasitako gauzak ez doazela bide onetik, lurrak galtzen ari direla, kutsatzen, osasunean ere plagiziden eragin txarra azaltzen hasi dela, eta luzarora konponbiderik gabeko bide bat hartuta geneukala.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Eguberri zoriontsu eta Urte berri on!
943 60 35 44

BARE - BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
Gabon zoriontsu eta urte berri oparos

# Lurra ez da baserritarren ardura bakarrik; kaletarrek ere kontzientzia hartu behar dute

**Noiz erabaki zenuten bide horri ekitea? Zergatik?**

Ba, orain dela gutxi, joan den udan hasi ginen lan-modu horretan. Geuretzat ez ezik, herri mailan ere jendearen kontzientzia piztu nahi genuen; alegia, gure ingurua zaintzearen garrantziaz eta garbi jatearen mesedeaz oharrarazi. Inguruko baserritarrak ere kontzientziatu nahi genituzke. Ilusiorik gabe eta lagata ikusten ditugu baserriak, eta lehen gure aiton-amonek eta aurrekoek lan egiten zuten modua berreskuratu nahi dugu: lurraren zikloak zainduta, eta sasoian sasoiko produktuak ekoiztuta; berriz ere, baserritar gazteak euren sustraietara bueltatzea nahi genuke. Lurra ez da, gainera, baserritarren ardura bakarrik; kaletarrek ere kontzientzia hartu behar dute, eta denon artean egin behar dugu lurraren alde, eta baserritarren lana baloratu egin behar da nekazaritzaren egoera penagarri honi buelta emateko.

**Zeintzuk dira eman dituzuen pausuak, Myriam?**

Lehenengo zailtasuna lurra aurkitzea izaten da. Lurrik onenak errepidez eta eraikuntzaz bete ditugu, eta, bestalde, guk ez daukagu lurrak alokatzeko ohiturarik. Diputazioak badauka *Etorlur* izeneko ekimen bat horretan laguntzeko, eta berari esker lortu dut nik Elgoibarren lursail egoki bat, izan ere, hemen *Basailun*en ez daukagu nahikoa leku. Gero, Biolurren sartu eta bertako teknikariek erakusten dizute zer eta nola ekoiztu behar den. *Biolur*en biltzen gara Gipuzkoan nekazaritza ekologikoa egin nahi dugun guztiok. Nola eta nondik hasi ez dakienarentzat oso lagungarria da elkarte horretara hurbiltzea. Eta ez da batere garestia bertako partaide izatea. Eurak arduratzen dira lurrak egokitzeaz; esate baterako, azken urteetan plagizidak-eta erabili izan badira edo pinua landatu izan bada edo beste edozer, eurek erakusten dute lur hori nola saneatu behar den (bi edo hiru urtetan landare jakin batzuk ereinda lortzen da lurra errekuperatzea).

**Zer dira kontsumo-taldeak?**

Gipuzkoan ia herri guztietan daude edo ari dira sortzen. Urtarrilean egingo dugu bilera bat, eta bertan azalduko dugu horren inguruko guztia. Oraingoz, urtarrilaren 20an egiteko asmoa daukagu, Zabielen, arratsaldeko 7etan (jarriko ditugu iragarkiak horren berri emateko). Herritarrak ez ezik, baserritarrak ere bildu nahi genituzte gure filosofiaren eta funtzionamenduaren berri zehatza emateko (asteroko otarrak eta abar); izan ere, elkarlana eta konpromisoa behar da ekoizle eta kontsumitzaileen artean.

**Zein da zuen filosofia?**

Honako puntu hauek hartzen ditugu oinarritzat:

1. Elikagaien subiranotasuna berreskuratzea (geuk erabaki zer eta nola ekoiztu eta jan nahi dugun, eta ez multinazionalek; betiko hazi eta barazki motak landu, gure lurrera ondo egokitzen direnak).
2. Bertako produktuak ekoiztea, gure ingurura ondo ohituta daudenak.
3. Garaian garaiko barazki eta frutak jatea.
4. Transgenikorik inola ere ez, alergia eta osasun-arazoak sortzen dituzte-eta.
5. Eredu iraunkorrak sortea sozialki, ekonomikoki, ekologikoki eta kulturalki (azpimarratu nahi dugu hau ez dela moda bat).
6. Denek parte hartzea erabakietan: baserritar eta kontsumitzaileen arteko dinamika.
7. Auzolana bultzatzea (esate baterako, sagarrak bildu edo patatak jasotzeko garaian laguntzera joan bazkari truke, eta horrrelakoak. Lehengo usadio zaharrera).
8. Harreman zuzena izatea, bitartekaririk gabekoa.
9. konpromisoa hartzea (ekoizleak, bere lurraren hoberena eta maitasunez landutako produktua eskaintzekoa eta, bezeroak, erostekoa).

**Nola konpontzen da nekazaritza ekologikoa plagei kontra egiteko?**

Ez dago pestiziden beharrik mamorro kaltegarriak uxatzeko. Batzuetan, nahikoa da landare usaintsuak sartzea besteen inguruan; adibidez, apioa, estramonioa, ziape edo mostaza, erromeroa eta usain handiko beste batzuk. Asun, azeri-buztan edo baratxuriekin egindako ura ere erabiltzen da horretarako. Bareak uxatzeko, berriz, garagardoa. Eta beste makina bat aukera ere badaude. Gero, zein landare zeinen ondoan sartu ere jakin behar da, esate baterako, aza+kipula+patata ondo konpontzen dira elkarrekin edo azalorea+patata+apioa eta azenarioa+porrua+kipula baina beste batzuk ezin dira elkarren ondoan sartu.

**Amaitzeko, hausnarketarako datu kezkagarri batzuk:**

- Mundu osoko hazien %80 multinazionalen esku dago.
- Jaten dugunaren %20 bakarrik da bertan ekoiztua. Gainontzekoak 2.000 km egiten ditu batez beste guregana heldu aurretik.
- 1900 urtean Ameriketako Estatu Batuetan 7.100 sagar-mota zeuden. Gaur egun, 600 baino ez.
- 1950 urtean Txinan 10.000 gari-mota zeuden: 1980an, 1.000 bakarrik.
- Espainian, gerra ondoren, milatik gora ziren gari-motak. Gaur egun, ehun inguru.
- %95 aza-mota, %90 arto-mota eta %80 tomate-mota galdu dira dagoeneko.

## Nekazaritza ekologikoa da lurra lantzeko modurik aurreratuena

## Frantzian hogei bat urte doaz aurretik lan-modu honetan

## BERTAN EGUNA

Azken urteetan ohikoa da Gabon bueltan Bertan merkatarien elkarteak BERTAN EGUNA ospatzea. Eta aurten ere izango dugu. Abenduaren 27an. Goizeko 11etan, Txantxangorriko begiraleak umeekin elkartu eta Altxorraren bila jardungo dute herrian zehar. Bazkalondoan, 4etan frontoian umeentzako jolasak eta tailerrak izango dira, eta 5,30etan umeentzako txokolatada. Tripa bete-bete eginda, jolasen eta tailerren ondoren, Trikitixa taldearen doinuei jarraituz kalejira ederrean joango dira umeeta gurasoak herriko kaleetan zehar.

Bestalde, gogoratu Bertan elkartearen *Itsatsi eta irabazi* kanpainak urtarrilaren 6ra arte iraungo du. Dendetan jasotako bolak zuhaitzean itsatsi... eta saria emango duen izarraren bila!

Izan ere, Bertanek 300 euroko bono-sari bat eta 100 euroko 13 bono-sari banatuko ditu bezeroen artean. Sariak trukatzeko epea, urtarrilaren 18a.

## KASTIÑA MUTRIKUN

Telebista kate guztiak daude realiti-xou direlakoetan sartuta. ETBn ere horren aldeko apostua egin dute, antza, eta programa berri bat presatatzen hasita omen daude.

Kalaputxik jakin ahal izan duenez, jende euskalduna behar dute, adin guztietakoak gainera, eta gure herrira etortzekoak omen dira, modu anonimoan jendea kalen zehar ikusi, entzun eta programarako aukeratzeko. Lehenengo aukeraketa bat egingo dute urteko azken martitzenean. Arratsaldeko lauetatik seiak arte bi lagun kalez kale ibiliko dira alde zaharrean, eta zazpietan aukeratzen dituzten pertsonen argazkiak erakugai jarriko dituzte kultur etxeko tabloian.

Aukera ederra telebistan aktore lanak egiten hasi nahi dutenentzat. Adi eta aprobetxatu aukera!

## UDALBILTZA

Aurreko Kalaputxiak jarraitu dituenak honez gero badaki Udalbiltzaren aurkako epaiketa amaitu zela eta dagoeneko epaiaren zain daudela. Jarraitu genituen epaiketaren aurreko uneak eta esperantzak, jarraitu genituen epaiketan zeharreko datuak eta sentipenak, eta agindu genuen epaiaren berri ere emango genuela. Dirudienez, Udalbiltza auzipeko euskal herritarrek Gabonak askatasunik gabe iragan beharko dute, etorkizunaren beldur dena, etorkizuna eraikitzeko gai ez dena preso bizi baita, askatasunik gabe. Hala ere, konfidantza izango dugu Olentzerok zoriona eta esperantza kiloka ekarriko digula, aldeko epai itxura emanda.

## komikixa

josu ituarte “pitxame”

## ANDONI ZUBIAURRE "GORIXO" EUSKAL HERRIKO TXINGA EROATE TXAPELKETAN

Abenduaren 5ean Goizuetan (Nafarroa Garaia) jokatu zen Euskal Herriko Txinga eroate txapelketan, Andoni Zubiaurre "Gorixo"k laugarren postua lortu zuen, 12 plaza eta 2,5 metro egin ondoren, guztira 338,5 metro. Nahiz eta egindako lanarekin gustura gelditu, aurreko astean gorputz txarrarekin ibili ondoren, txapelketan egin zuena baino marka hobeagoa egin zezakeela ziur zegoen. "Antzeman nuen ez nengoela guztiz ondo, ondo egon banintz pentsatzen dut marka hobea egingo nuela" adierazi digu. Gipuzkoako txapelketan hirugarren postuan sailkatu ondoren, goi mailako txapelketa honetan sartzea lortu zuen. Joan zen urtean ere 19 plaza egitea lortu zuen eta laugarren postua eskuratu zuen, aurten bezalaxe. Oraingoan, esku bakoitzean 50 kiloko txinga banarekin ahalik eta metro gehien egin behar zuten kirolari guztiek. Zazpi kirolari aritu ziren lanean. Txapeldun, Juan Joxe Agirregabiria debarra, 20 plaza (560 metro) eginda. Horrenbestez, debarrak bost aldiz jantzi du txapela azken zortzi urte hauetan.
Etorkizuna? Andonirena, guretzat zalantzarik ez!

2010eko sailkapena:
1. Juan Joxe Agirregabiria (Deba, Gipuzkoa; 52 urte): 560 metro (20 plaza)
2. Miel Angel Sukuntza (Leitza, Nafarroa Garaia; 40 urte): 468,50 metro (16 plaza, ½ eta 6,5 m.)
3. Oscar Perez (Gurutzeta, Bizkaia; 40 urte): 439,50 metro (15 plaza, 1/4 eta 4,5.)
4. Andoni Zubiaurre (Mutriku, Gipuzkoa; 24 urte): 338,5 metro (12 plaza eta 2,5 m.)
5. Jose Larrazabal Txutxi (Laudio, Araba; 36 urte): 281,40 metro (10 plaza eta 1,40 m.)
6. Imanol Martin (Berriozar, Nafarroa Garaia; 29 urte): 248,40 metro (8 plaza, 3/4 eta 0,40 m.)
7. Simon Thomas (Metauten, Nafarroa Garaia; 35 urte): 217,70 metro (7 plaza, 3/4 eta 0,70 m.)

# BUZOIA

## EHIZTARIOK KONTUZ GABILTZA

Azken Kalaputxin irakurri genuen basurde ehizan ibiltzen garenon inguruko idatzi bat. Oro har, idatzitakoarekin bat gatoz, baina irakurleei gauzatxo batzuk gehiago argitu nahi dizkiegu:

Ehiztariak gara, eta basurde ehizan ibiltzen gara, bai, baina gure afizioaz disfrutatzeko ez ezik ingurumenaren eta gizakion arteko oreka zaintzen ere ibiltzen gara. Izan ere, Ehiza federazioak eta Foru Aldundiak emandako instrukzioei jarraitzen diegu, zintzo-zintzo. Haiek nora joateko esan, gu hara joan. Batiden berri ematen duten kartelak ere Diputazioak emandakoak dira. Hor ibiltzen gara, Getariatik Bizkaiaraino eta autopistatik itsasoraino, beti Diputazioak eta guardak esandakoari kasu eginez, dagoen basurde populazio handia mugatzen. Eta beti saiatzen gara jendeaibiltzen ez den parajeetan ibiltzen, basurdeak ere aparte ibiltzen dira eta.

Hortaz, gogoratu nahi dugu geu garela lehenengoak kontuz ibiltzen, eta mendiaz gozatu nahi dutenak lasai ibiltzeko, gurekin ez dute-eta arazorik izango.

## KUDEATUZ PROGRAMA ABIAN DA

Gipuzkoako Foru Aldundiak duela hiru urte herritarren eta erakundeen arteko harremanak estutzeko prozesuak jarri nahi izan zituen martxan. Aurtengoan, Mutrikuko Udalak bat egin du Aldundiaren ekimenarekin, eta, ondorioz, udal zerbitzuen inguruan herritarren asebetetze maila neurtu nahi izan du, batetik. Bestetik, herritarren parte hartze prozesu baten bitartez, udalaren jabetzakoa den eraikin bat, komendua, datozen urteetan zertara bideratu beharko litzatekeen galdetu nahi zaie herritarrei.

Herriko kultur eragileen ordezkariak eta zozketaz aukeratutako hainbat herritar deituak izan ziren Zabiela, azaroaren 29an. Lehenengo saio hartan, egingo den prozesuaren berri eman zen eta komenduko eraikina bisitatzera joan ziren bertaratu guztiak.

Hurrengo batzarra abenduaren 16an izan da, arlo sozialerako eta kulturalerako erabilgarri dauden ekipamenduak zeintzuk diren eta zenbatean erabiltzen diren aztertzeko eta egon daitezkeen beharrak identifikatzeko. Ondoren, beste batzarrak egingo dira beharrei nola erantzun ahal zaien proposamenak egiteko eta horiek biltzeko.

Bileretara deituak izan direnek beren proposamenak egingo badituzte ere, etxetik ere egin daiteke ekarpenik. Horretarako, udalaren web orrian atal bat prestatu da, prozesuaren berri emateko eta ekarpenak egiteko ere bai. Laburbilduta, hona bidal daitezke ekarpenak: webmaster@prospektiker.es.

Prozesua amaitzen denean, Kalaputxik emaitzaren berri emango dizue irakurle guztioi.

## ISABEL LOBIANO KALEA

Madalena auzoan egin dituzten babes ofizialeko etxe berrien inguruan sortu diren kale berriei  izen berria eman zien Udalak: Irigibel eta Olatz bidea.

Udazkenean beste kale bati eman zaio izena. hain zuzen ere, kanposatura igotzeko bidegurutzetik Samikollara joateko errepideari. Izan ere, Goiko Arban egin dituzten etxeek hiritartu egin dute inguru hori, eta, ondorioz, kale berria sortu da.

Izena: Isabel Lobiano.

Mutrikuar batek baino gehiagok oraindik ez du jakingo zein izan zen kale horren izena hartu duen emakumea. Aukera ederra dugu, beste behin ere, gure herriaren historiaz zerbait gehiago ikasteko. Galdetu zuen inguruan. Kalaputxik hurrengo batean agertuko dizue nor izan zen Isabel Lobiano, eta zergatik gogoratu den gaur egunera arte.

## PLAIA KONPONTZEN HASTEKOAK DIRA

Iñaki Arriola eibartarrak zuzentzen duen Departamenduak jakitzera eman duenez, Mutrikuko portuko hondartza eta Burumendi inguruko piszina egiteko obren esleipena egina dago. Amenabar eta Moyua enpresen arteko aldi baterako enpresa elkarteari esleitu zaio obra, bi milioi euroko aurrekontuarekin.

Adierazi dutenez, obrak "aurki" hasiko dira, eta "uda aurretik" amaituko dira. Ikusiko dugu, baina aurreko esperientzia ez da batere ona.

## ABENDUAN ABENDUROCK

Abenduaren 4an, 5ean eta 11n izan ziren *Abendurock*eko lehenengo hiru emanaldiak, Bar Puerton, Zubixan eta Zubiaranen.

Abenduaren 18an eta 25ean, berriz, Gaztetxian eta Goitibeheran izango dira kontzertuak.

Abendu hotzean musikaz gozatzeko aukera ederra MRKkoek eskaintzen dutena, doan, betiko moduan. Aurten, baina, bestetan izaten diren laguntzak huts egin dutenez, sarrera sinboliko bat kobratuko zaie kontzertuetara bertaratzen -direnei, sortzen diren gastuetan laguntzeko.

Diru arazoen gainetik, musikaren zabalkundeari eman nahi izan diote lehentasuna, eta aurrerantzean ere bide horretatik jarraituko dute.

## GEOPARKEAREN ZIURTAGIRIA

Hilaren 15ean jaso zuten Mutrikuko, Debako eta Zumaiako Udalek Euskal Kostaldeko Geoparkea Eusropako Sarean sartzen dela ziurtatzen duen agiria, Debako udaletxean egindako ekitaldian, Guy Martini geologo frantsesaren eskutik.

Arratsaldean, geologo frantziarrak Geoparkearen kontzeptua izenburuko hitzaldia eskaini zuen Zumaiako udaletxean.

"Geoparke izendapenak geoturismo jarduerak kontsolidatu eta indartzea ekarriko du berekin, eta ondare naturalari eta geologikoari balioa emateko eskualdearen bokazioa indartzea" adierazi dute Geoparkearen arduradunek.

# URTE BERRI EGUNEAN ARNORA BURUMENDI Mendi Elkartearekin

**Mutrikuar asko dira Urte Berriari Arno mendiaren gailurrean hasiera eman, eta elkarri urte zoriontsu bat opatuz, txorizo muturra eta salda beroa lagun, txabola inguruak alaitzen dituztenak euren solas eta kantuekin. Burumendiko kideak dira aspaldiko ohitura horri eusten diotenak, bolada on eta txarretan. Agustin "Pikua"rekin eta Ezkiderekin jarri gara solasean Elkartearen azken ibilbidea zuei azaltzeko.**

**Urtea bukatzen ari denez, egingo al diguzue urteko balorazioa?**
Urte hasieran erabakitako irteera-kalendarioa bete dugu. Esan beharrean gaude, parte hartu dutenen kopurua jaitsi egin dela heren baten gutxi gorabehera, eta berdin gertatu dela harreman zuzena daukagun inguruko herrietan ere. Ez dakigu zerk eragin duen, agian gazteek duten autonomia handiagoak, baina datorren urtean kontuan izango dugu, ea lehengo kopuruak berreskuratzen ditugun.

Irteera batzuk oso giro onean bete dira, Frantziako Saint Laryra uztailean egin genuena bezala, eta oso pozik bukatu genuen Eibartik Mutrikurako gau martxa irailaren bukaera aldera, halako giroa sortu baitzen gure artean nahiz eta lainoa izan genuen. Aipatzekoa da, baita ere, apirileko argazki erakusketa: beti izaten da polita urte batzuk gainetik kenduta norbera edo lagunak ikustea. Arnoko VI. Mendi lasterketa ere ondo atera zitzaigun, eta, gainera, arazo ekonomikorik gabe. Urriko mendi ziklorako, profesional bezala Juanjo Sansebastian ekarri genuen, eta etxeko jendeen proiekzioekin bete genituen beste egunak; atseginez hartu zuten hauen hurbiltasuna agertu zirenak.

Bukatzeko, abenduaren 12an Gipuzkoako mendizale guztientzako zeharkaldia antolatu dugu Mutrikun (Eguzkitza – San Blas – Kostolamendi – Olio-iturri – Ormola – Arnoko txabola – Aparain – Elur-Toki – Urkamendi – Talaixa – Moila), eta ondoren bazkaria.

**Abenduan, urtero bezala, lanez-lepo izango zarete?**
Bai, jakina. Ohiko lanez kanpo, orain egin behar izaten ditugu 170 bat federatuen aseguruen tramiteak eta datorren urterako bazkidetza txartelak: 230 bat bazkide ditu Burumendik. Urteko lanei bukaera emateko, Urteberri egunerako Arnoko mokadutxoa ere prestatu beharrean izango gara; gainera, aurtengoan nola ez dugun udalaren dirulaguntzarik, itsulapikoren bat jarri beharko dugu 300 txorizo eta tragotxo apurra ordaintzeko.

2011ko egutegia ere prestatua dugu bost mendi elkarteren artean, eta datorren urtekoetan aipatzekoak dira: Dina Martxa ekainaren 25ean Tolosatik Ondarroara gauez; hiru eguneko irteera Leongo mendietara uztailaren lehenengo egunetan, eta urriaren 30ean guk prestatu behar dugun Gipuzkoako Mendizale Federazioaren XXV. helduen ibilaldi neurtua.

**Eta noizko duzue urteko batzar nagusia?**
Gauzak okertzen ez badira urtarrilaren 22an izango dugu. Bertan aurkeztuko da batzorde aldaketa, eta ea oraingoan gazteak aurkezten diren, badago-eta bide berrietan zehar abiatzeko beharrik. Kalaputxiko tarte hau aprobetxatuko dugu eurei dei berezia egiteko, ea animatzen diren. Zer esanik ez, herritarroi Urte Berri zoriontsu bat opatzeko ere bai.

1955eko Martxa Erregulatuan Josu Andonegik irabazitako domina. (Burumendi ME)

Eguberri on eta Urte berri osasuntsua!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Eguberri zoriontsua!
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

# GABONAK TXANTXANGORRIREKIN

## TXANTXANGORRI

### 1. mailatik 6. mailara arteko umeak

**abenduaren 27an, BERTAN eguna**

**ALTXORRAREN BILA** ibiliko gara Mutrikuko kaleetan zehar, goizeko 11etan goiko plazan elkartu ondoren. Ordu batean, bazkaltzera.

Arratsaldean, 4etan, frontoian batuko gara berriz, eta **JOLASAK** eta **TAILERRAK** egingo ditugu. Ondoren, 5,30etan, **TXOKOLATADA** egingo dugu, txokolate eta gozti! Eguna amaitzeko, herrian zehar **KALEJIRA** egingo dugu herriko kaleetan zehar Trikitixa taldeak lagunduta.

**abenduaren 28an, Inuzente eguna**

Goizeko 11etan Zabielen elkartu ondoren, **JOLASAK** egingo ditugu eguerdiko ordu bata arte.

**abenduaren 29an**

Sei (6) urtetik aurrerakoak **TXURI URDIN**era joango gara izotz gainean paninatzera... kontu handiz ibilita!
Irteera ordua eta eraman beharrekoak aurreko egunetan adieraziko dira, lasai.

## LAPATXOKO Gaztelekua

### 13 urtetik 18 urte bitarteko gazteak

**abenduaren 18an, Santo Tomas azoka**

Azken urteetan bezalaxe, Santo Tomas azokan **SALPOSTUA** jarriko dugu eta eskulanak salgai jarriko ditugu gure ekintzak egiteko dirua lortzeko.

**abenduaren 21etik 24ra**

**LAPATXOLINPIADAK** izango direnez, izena emateko egunak izango dira hauek. Xake, Ping-Pong, Billar eta Mahai-jolas txapelketak izango dira.
Zatoz Gaztelekura izena ematera!

**abenduaren 28an, Inuzente eguna**

**GAZTELEKUAREN 4. URTEURRENA ospatzeko festa.**
Gaztelekuan ibili zareten guztiok gonbidatuta zaudete!

**zehaztuko den egunean**

Gazteek antolatuta, **IZARREN ARGIA** filma ikustera joango gara, egunpasan.

**LAPATXOKOLINPIAD**en finalerdiak eta finalak, urtarrilean.

ARRIETA AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

abenduak

# 27

2010

# bertan eguna

11:00/13:00
**ALTXORRAREN BILA**
Irteera, Goiko plazan

16:00
**JOLASAK / TAILERRAK**
Frontoian

17:30
**TXOKOLATADA UMEENTZAKO**
Frontoian

ondoren...
**KALEJIRA TRIKITIXAKIN**

## BERTAN MERKATARI ELKARTEAREN GABON KANPAINA

**1.600 €uro IRABAZTEKO AUKERA DAGO!!!!**

**Bete ezazu gabonetako arbola eta jaso ezazu zure**

# SARIA

BERTANEKO dendetan erosketak egiteagatik
eransgarri desberdinak jasoko dituzu
**ITSATSI ETA IRABAZI !!!**

Mutrikuko Udala

bertan

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# IXONE ETA IOSUNE, TREN MAKINISTA

*Iosune Iriondo eta Ixone Alkorta: bi emakume mutrikuar tren gidari ianetan. Azken urte hauetan Eibarko Euskotren tren geltokian dihardute lanean, hain zuzen ere makinista postuan. Lehen gizonezkoek egiten zuten beharra, gaur egun emakume askoren ofizio bihurtu dela esan genezake. Trenak garraiobide seguru eta erosoak direla ziurtatzen digute, eta segurtasun honen zaindaritzan eta trenaren gidaritzan jarraituko dutela adierazi digute bi emakumeek. Beraien beharra oso gustukoa duten arren, estutasun uneak pasatzea ere tokatu zaie.*

**Nola iritsi zarete tren gidari edo makinista izatera?**
Nik egunkarian ikusi nuen iragarki bat –dio Iosunek–, bertan agertzen zen tren geltokietan lan egiteko auxiliarra behar zutela. Ondoren, lan poltsa bat sortu eta makinista lan egiteko deitu zidaten, deialdi honetan parterik hartu ezean lan poltsa horretatik kanpo bidaliko nindutela entzutean, aurkeztea pentsatu nuen.

Ez nekien makinista izatea zer zen, nire zalantzak argitzeko Isasiko Patxiren laguntza izan nuen, hau ere tren gidaria baita. Azterketak egin ondoren, praktikak egiten hasi nintzen, langile guztiek aurrez ikastaro batzuk egin behar izaten baitituzte. Nire txandan, berrogei bat lagunek jaso genuen ikastaroa.

Lankide ohi batek animatuta –dio Ixonek– Euskotreneko autobus gidari poltsa batera aurkeztu nintzen. Hasiera batean ez neukan asmorik poltsa honetarako izena emateko, baina lagun bati laguntzera joan, eta neu ere han apuntatu nintzen.
Ondoren, telefono dei bat jaso nuen, tren gidari poltsa bat zabaltzera zihoazela eta ea animatzen nintzen. Animatu, azterketak gainditu, eta hemen aurkitzen naiz orain ofizio honetan lanean.

**Zuen lehenengo geltokia non?**
Ni Eibarren hasi nintzen –dio Ixonek–, eta nire lehen praktikak, hain zuzen ere, Iosunerekin egin nituen.

Ni, berriz, –Iosunek–, Eibarren hasi nintzen, ondoren Donostian ibili eta berriro Eibarrera bueltatu naiz.

**Zein ikasketa egin behar izan dituzue makinista lanean hasteko?**
Gaur egun, gure ustetan OHO eskatzen dute, lehen LH2 eskatzen zuten. Eta lanerako deituz gero, ikastaro txiki bat egin beharra daukazu beraiekin.

**Trena gidatzea konplikatua al da? Nola egiten da?**
Ez, trena gidatzea oso erraza da, esango nuke kotxea gidatzea baino errazagoa dela, arazoak aberiak daudenean datoz. Kasu hauetan eta beste edozein kasutan berdin, trenean geu bakarrik goaz, ez daukazu lankide bat bera ere. Beraz, matxuraren bat daukazunean, trena gelditu egiten da, eta Donostiatik deika hasten zaizkizu ea aberia konpontzerik daukazun ala ez. Momentu latzak izaten dira, jende guztia galdezka baitaukazu gertatu denaren berri jakin nahian, baina agian norberak ere ez daki zer izan den.

**Emakume gutxi izango zarete…**
Dezente. Gero eta emakume gehiago ikusten da. Azken hamar urteetan hasi diren emakumeen eta gizonen kopuruak parekoak direla esan daiteke. Egia da, ordea, beterano gehienak gizonezkoak direla.

**Garraio segurua dela esango zenukete?**
Bai, gure ustez bai. Zaila da zerbait gertatzea, momentuan faktore asko bildu behar dira zerbait larria gertatzeko. Abiadura azkarrean bazoaz, disko gorria pasatu baduzu, edota norberari zerbait gertatzen bazaio, trena bere kabuz gelditzen da. Makinistak pedal bat zapaldu behar du, “gizon hila” delakoa, trena martxan ibilkiko

bada. Hanka gainetik kentzen den bezain laster trena gelditu egiten da.

**Estutasunik izan al duzue noizbait?**
Badaukagu zer kontatu, bai! Nik –Ixonek– behi bat jo nuen Arroatik Zumaiara bitartean, eta egia da estutasuna pasatzen dela. Eskerrak egun hartan teknikoarekin nindoala, horrela istripuak lasaiago hartzen baitituzu. Behiari dagokionez, kolpearen ondorioz hala-nola baina bizirik jarraitu zuen. Guk, abisua eman genuen hurrengo trenak ezustean aurkitu ez zezan, baina, badirudi behia lekuz aldatu zela eta pixka bat aurrerago bigarren trenak ere behia jo zuen. Azkenean, ertzainek akabatu egin behar izan zuten behi gaixoa.

Niretzat, berriz, –Iosunek– estutasun egoera bat geltokietako jende pilaketa da, elkarri bultzaka eta nor lehenago sartu ibiltzen baitira. Urte baten, horrelako egun batean, denak elkarren gainean eta bultzaka zeudenean, neskato bat trenbidera jausi zen, hain zuzen ere trena eta geltokiaren artean gelditzen den tarte estu horretara. Ni ez nintzen ohartu ezertaz. Bat-batean jendea oihuka hasi zen, eta horrela konturatu nintzen zerbait gertatzen ari zela. Kanpora irten eta han ikusi nuen neska koxkorra tarte estu hartan harrapatuta. Eskerrak ez zen ezer gertatu.

Segurtasunagatik, jendea dela eta, sarrerak aldatu izan dira. Baina, jaietan eta, adibidez Elgoibarren, larunbat arratsaldeetan egoten den jende pila izugarriarekin ez dago zer eginik. Batez ere edanda daudenean eta trena heltzean tontokeriatan hasten direnean, ia nor jauziko tren bidera.

**Eta barruan bidaiari horiekin guztiekin…**
Guk normalean ez daukagu bidaiariekin kontakturik, gure lanean zentratzen gara, eta zerbait arraroa ikusiz gero, dei bat egiten dugu Ertzaintzara.

**Zuen gustukoa al da lan hau?**
Bai oso gustukoa da.

**Eta zuek bidaiatzen duzue trenez?**
Ni noizean behin ibiltzen naiz, –Iosunek– batez ere umearekin bidaiatu behar dudanean, asko gustatzen baitzaizkio ibilgailuak.

Lanean hasi aurretik, –Ixonek– ez dakit hiru bat aldiz ibili nintzen trenean. Ordea, orain trenean ibiltzea gustuko dut.

1- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
2- Masajea :
- Estetikoa
- Terapeutikoa
3- Drenaje linfatikoa
4- Depilazioak :
- Beroa
- Hotza
- Elektrikoa
- Laserra
5- Pedikura - Manikura
6- Makillajeak
7- Mikropigmentazioa
8- Dietista

Estetika eta Terapia Institutoa
Fisioterapeuta tituluduna

GALILEO FITNESS

ariketa eta terapia

ongizate eta
edertasunaren gunea

Beheko Plaza, 5
Tel.: 943 60 42 29
20830 Mutriku



Aliprox

DENDA BERRI

liderra den Talde baten babesarekin

GABON JAI ZORIONTSUAK
eta
URTE BERRI ON BAT OPA DIZUE

# AMNISTIA ETA ASKATASUNA

Paper baten idatzi daitezkeen zirriborroek duten garrantzia ulertu dezakeen inor ez dagoela uste dut, kartzelan inoiz egona ez bada. Gehiago esango nuke, hauek barneratzea, preso eta iheslarien dohaina da.

Idatzi honen bitartez, gutun baten esanahia ulertarazten saiatuko naiz. Gutun bat, paper baten zirriborro sinple bat baino, askoz gehiago da, zerbait magikoa da. Hain indartsua da, inposatu nahi diguten bakartzea bera ere, puskatzen duela. Inposatutako distantziarik ez du ezagutzen. Clairvauxetik Algecirasera bidaiatzen du, Valenciatik Bapaumera, bidaiaren denborari kasurik egin gabe. Bere bidaian sarri aurkitzen dituen oztopoei ez dio beldurrik, mezu etenduak, desagertze misteriotsuak, ustekabeko istripuak... idatzitako hitz bakoitzak, ezezagun ditugun lekuetatik igarotzen dira, guregana heltzeko, gu gauden espetxeetako pareta grisak, kolorez betetzeko... gaubeilan igarotzen ditugun gau luze, amaigabeak, argitzen dizkigute, amesgaiztoak izutzen laguntzen gaituzte, berotasunez betetzen gaituzte.

Gutun bakoitza, hitz bakoitza, bizitzaz beterik dago, sentimenduz kargatua baitator. Maite gaituzten pertsonen sentimenduz beteak datoz, gutaz egunero gutxi edo asko gogoratzen diren pertsonen sentimenduak. Era batera edo bestera, beraientzako garrantzitsuak gara, bakoitzarentzat modu berezian. Maitasunez, amodioz beteriko hitzek, biziberritzen gaituzte, nortzuk garen gogorarazten, bizirik gaudela, sentitzeko kapaz garela... zerbaiten parte garela gogorarazten digute. Bakarra den zerbait, itzela, eta gehienetan bakarra. Zuetako bakoitzaren zati garela gogorarazten gaituelako, eta horren balioa zenbaezina da, gure altxorra delako, eta ez dago distantzia, bakartze, tratu umiliagarririk, edo bizibaldintza gogorrik hori lapurtuko digunik.

Gutunak gure zilbor hesteak dira, moztu ezinezkoa, senideei, lagunei, egunerokotasunari, herrira, gure historiara lotuak mantentzen gaituena, zuen bizitzaren parte izatera lotzen gaituena, zuen arazoei, poz eta tristurei... hazten jarraitzea ahalbideratzen gaitu, ikasten, sentitzen, aurreratzen, hitz eta esaldi bakoitzarekin aberasten uzten gaitu, kalean hasi genuena jarraitzen, eta batzuetan pertsona berriekin ezustean uzten gaitu, esperientzia berriak, egunero berritzen... eta horrek bizirik mantentzen gaitu, sentitzen, amesten jarraitzea... esperantza bizi mantentzen du.

Idazteari eskaintzen diozuen denbora luze edo labur horrek, zuen eguneroko gauza txiki eta handi horiek, zuen maitasuna dakarkigu. Zuek, elkartasunaren hautsiezinezko katearen azken maila zarete, gure arnasa, arnasten dugun airea, gaueroko ametsak betetzen dituzuenok, zuen ondora itzultzea lortzen duzuen magia zarete.

askatasuna

Gu ere joango gara

# OKELAR ANAIAK
# BERTSOPAPER LEHIAKETA

## >>>>>>>>>>>>>>>>>>> aurten ere bertsoez gozatzeko aukera

Mutrikuko Bertso Eskolak urrian ekin zion ikasturte berriari. Ohiko martxaz gain, urteetako ohiturari heldu dio aurten ere. Berrikuntzak izan ditu XXVI. Bertsopaper sariketak, *Okelar anaiak sariketaz* gain, eta herriko bertsozaletasuna nolabait suspertu nahian, *"Mutrikuko gauzak… ora pro nobis!"* atala ere jarri du abian.

Aurtengo esperientzia lehenengoa izanik arrakasta handiena gazte mailan izan du. Bertan Goizeko Izarra zein San Miguel ikastetxeetako gazteek parte hartu dute, denetara 33 bertsopaper aurkeztuta. Gaiak era askotakoak izan dira, Santo Tomas feria, Txurruka, herriaren deskribapena, moilari buruzkoak, arrantzale girokoak… Batzuk 2-3 bertsotakoak, bertso sorta handiagoak ere bai tartean. Lehenengo urtea izanik ezin kexarik izan. Badira bertso biziak, xelebreak eta irudimen handikoak tartean.

Helduen mailari dagokionez ez du nahi adinako arrakastarik izan. Baina aurkeztu diren 4 bertso sortek une gozagarriak eta atseginak pasatzeko modukoak dira.

Okelar sariketan, berriz, alderantziz gertatu da, gazte mailan aurkeztutako lanak 4 izan dira eta heldu mailan, berriz, 15. Gazteen mailako txapeldunak hiru bertso sorta idatzi ditu. Helduen mailan ere bada hiru bertso sorta idatzi duenik. Egunerokoa gaiak, alaiak, tristeak… kolore eta tonu askotakoak…

Aurtengo saituen bertsoak hilabetero kaleratuko dira Kalaputxin urtarriletik aurrera.

### "MUTRIKUKO GAUZAK… ORA PRO NOBIS!

**GAZTEEN MAILA:**
1. saria: "Motxo". Egilea: Jon Galarraga
2. saria: "Hondartza". Egilea: Deiene Solozabal.

**HELDUEN MAILA:**
1. saria: "Mutrikuko kontuak kanpotar baten talaixatik kantatuak". Egilea: Abel Irizar.

2. saria: "Mutrikuko gauzak… Ora pro nobis". Egilea: Aitziber Azkue.

### OKELAR anaiak XXVI. BERTSOPAPER LEHIAKETA

**GAZTEEN MAILA:**
1. saria: "Itsasoan bahiketa". Egilea: Jone Alberdi.
2. saria: "Zer ote da adina". Egilea: Jone Alberdi.

**HELDUEN MAILA:**
1. saria: "Diamante ustelak". Egilea: Aitor Albistur.

2. saria: "Saturraran". Egilea: Xabier Astigarraga.

# mutrikuarrentzako

## 2011ko kalendaixua

Olentzerok Mutrikuko etxe guztietara!

**4 EUROTAN SALGAI**

**Beristain liburudenda,Guadalupe, Goiko Virginia, Beheko Virginia, Iñigo-Belen eta Agerretxo**

*2011 urtean Kalaputxi hilero-hilero etxeraino ailegatzen laguntzeko*

GOTZON ARRANDEGIA
Gabon zoriontsu eta urte berri on!
Gotzon Elzagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
Barrenkalea, 2
Tel. 943 60 47 43
KRESALA
EGUBERRI ZORIONTSU
ETA URTE BERRI ON!

# ARNO Bereziki Zaindu Beharreko Gunea

**Mutrikuarrontzat Arno beti izan da altxorra, istorioz, misterioz, eta abenturaz betea. Urtarrilaren 1ean hasita, sarri joaten da mutrikuarra Arnora, eta zaindu ere zaintzen dugu, geurea delako. Arno Bereziki Zaindu Beharreko Gune izendatu dute, eta orain Administrazioak espazio hori kudeatzeko neurriak jasoko dituen agiria egin behar du. Hori egiteko herritarren partehartze prozesua burutu da, zuzenean ikutzen diren eragileek adierazi beharrekoa adierazteko aukera izatearren.**

## Europako Natura 2000 Sareko Bereziki Zaindu Beharreko 52 Gune (ZEC) eta hegaztientzako Babes Bereziko 6 Gune daude Euskadin, eta Arno horietako bat da. Natura 2000 Sarearen helburu nagusiena da Europan biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

Gaur egun, nazioartean onarpen zabala eman zaio eta asumituta dago aldaketa klimatikoa eta biodibertsitatearen galera geldiaraztea humanitatearen erronka nagusienetakoak direla. Izan ere, biodibertsitateak gure ongizatea eta bizitza kalitatea dakartzaten ondasunak eta zerbitzuak ematen baitizkigu: jakiak, lehengaiak, botikak, uraren arazketa, atmosferaren garbiketa, laboreen polinizazioa, izurriteak kontrolatzea, lurzoruaren sorrera, klimaren erregulazioa… Hori dela eta, gure paisaiak eta horietan bizi diren landareen zein animalien dibertsitatea gordetzeak gure ongizatea bermatzea ekarriko du.

**Zergatik da Arno Bereziki Zaindu Beharreko Gunea?**
Europako zuzentarauetan zerrendatutako espezieak eta habitatak daude Arnon, eta Euskadin, Europako Batasunaren baitan dagoen neurrian, horiek babestea erabaki da.

Arno Europako Natura 2000 Sarean sartzeko arrazoi nagusiena izan zen kantauriar artea multzo handietan egotea bertan. Horren ondoan landazabala ere presente dago, eta, duen balio kulturalarekin batera, bereziki zaindu beharrekoak diren habitatak ditu honek. Habitat horietan fauna komunitate handia dago, mehatxatuta dauden hegazti batzuk ere bai.

**Bereziki Zaindu Beharreko Gunea kudeatzeko neurrien agiria**
Bereziki Zaindu Beharreko Gune izendapenak lurraldea kudeatu beharra dakar, izendatzeko arrazoi izan diren espezieak eta habitatak babestearren, eta kudeaketa hori ahalbidetzeko tokiari berari egokitutako babes-neurrien agiri bat prestatu behar da. Neurri horiek planteatzeko orduan, kontuan hartu beharko dira, garapen iraunkorra bilatuz, beharrizan ekonomikoak, sozialak, kulturalak nahiz herrialdekoak. Kudeaketa horren bitartez, aukera berriak sor litezke tokiko ekimenarentzat eta borondatezko akordiotik abiatuta.

Agiriak tokiaren egoeraren azterketa egin, eta bertako balioen eta bertan burutzen diren jardueren arteko harremanaren analisia egiten du. Analisia horretatik abiatuta, agiriak babesa bermatuko duten helburuak eta neurriak ezartzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailak zenbait talde kontratatu ditu Euskadiko ZEC batzuen kudeaketa-agiriak idazteko. Lan teknikoez gain, kontratazioaren baitan sartzen da herritarrekin eta lurraldeko eragileekin parte-hartze prozesuak garatzea. Horren helburua, ahalik eta agiri adostuenak idaztea.

**Arnoko Bereziki Beharreko Gunearen inguruko partehartze prozesuan gaur arte egindako bidea**
Urrian hasi zen prozesua, Mutrikuko eta Mendaroko Udalekin izandako harremanarekin. Udalen kolaborazioarekin, aurkezpen-batzar baterako deia egin zitzaien herritarrei oro har eta jabeei eta erabiltzaileei bereziki, egin beharreko prozesuaren berri emateko eta izan litezkeen zalantzak argitzeko. Mutrikun, azaroaren 9an egin zen batzarra Zabielen, eta 35 mutrikuar bertaratu ziren.



Batzarrean Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate zuzendaritzako teknikari bat eta Arno kudeatzeko neurrien agiria idazteko ardura duen teknikaria izanik, bertaratutakoek lanen egoerari buruzko lehen eskuko informazioa izan zuten, eta galderak egiteko aukera ere bai. Saio berean, parte-hartze prozesuaren aurkezpena egin zen, eta zirriborroan proposatutako neurri zehatzen inguruan jarduteko interesa zutenei aukera eman zitzaien hurrengo lan batzarrerako izena emateko.

Lan-batzarra azaroaren 23an burutu zen Zabielen 60 pertsona elkartuta. Aurretik, batzarraren prestaketa gisa, izena emandako interesatuei zirriborro teknikoan planteatutako babes-neurrien laburpen-agiria bidali zitzaien.

Batzarraren ostean, abenduaren hasieran, lan-batzarraren akta bidali zitzaien parte-hartzaileei, batzarrean bilduta ko emaitzak eta ekarpenak jasota. Horrela bukatu zen parte hartzeko prozesu informala, eta konpromisoa hartu zen parte hartzaileei erakusketa publikoaren prozesu ofizialaren hasiera data jakinarazteko.

**Parte-hartzea ez da hemen amaitzen: jendaurreko erakusketaren prozesu ofiziala**

Eusko Jaurlaritzak agiria behin behinekotasunez onartuta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, boletin ofizialean jendaurreko erakusketa aldi ofizialaren iragarkia argitaratuko da, eta hilabeteko epea emango da alegazioak egiteko. Orduan aukera berri bat izango da parte hartzaileek edo interesa duen beste edozeinek, beren ekarpenak zein eskaerak jasota ikusten ez badituzte, Eusko Jaurlaritzari alegazioak idatziz egiteko, eta erantzuna idatziz jasoko du.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Urte berri zoriontsua!
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak...
Eguberri zoriontsu eta urte berri on!
Tel. 943 60 32 39 - MUTRIKU

# DURANGOKO NOBEDADE BATZUK

## HIRU MARIAK

**Arantza Urretabizkaia**

Beste liburuen ildotik, hemen ere gaurkotasunari lotutako bizipen batzuk kontatzen ditu. Hiru emakume adinduren gorabeherak direla eta osatu du nobela. “Gero esango dute adinarekin itzali egiten direla grinak, ahuldu. Normalean, jendeak zahartzaroari buruz hitz egiten duenean, berari gertatzen zaiona orokortzen du edo, bestela, jaiotza agiriak bizitza osoa gobernatu behar balu bezala jarduten du”.

## MOROAK GARA BEHELAINO ARTEAN?

**Joseba Sarrionaindia**

Liburu hau Sarrionaindiak idatzi izan ohi duenetik ezberdina dugu. Bertan pertsonaia historikoak eta gerla kolonialei buruzko gogoetak aurkituko ditugu, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak… Liburua saiakera-lan anitza eta sendoa da.

## DESIRA PLAZER

**Poesia erotikoaren antologia**

Igor Estankonak, Edorta Jimenezek eta Josune Munozek 68tik gaur egun arte Euskal Herrian idatzi den poesia arakatu dute erotismo bila. Jimenezen hitzetan: “Poema guztien artean lurralde bat eratzen da, euskal emakume eta gizonen erotismoaren kontinentea. Hona hemen desira eta plazerren mapa-mundia. Mapa hau zeharkatuz, X handidun lekuak (liburuak, poemak, egileak…) aurkituko ditugu, Altxor-mapa”.

## MEM ETA ZIN
**Ehmede Xani**

Mem eta Zinen historia, herri kurduaren epopeia nazionala da. Bertan, gizarte maila ezberdineko bi gazteren maitasun tragedia kontatzen da. Garai bateko gizarte kurduaren eta Ekialde Hurbileko errealitatea hurbiltzen digu. Jauntxoen aurkako borrokak, ukazioaren kontrako errebeldiak edo hizkuntzarekiko maitasunak gure herriaren eta hizkuntzaren oihartzuna dakarkigute. Arratsalde pasa baten erraz irakurtzekoa.

## MUNDUKO SUKALDARITZA
Liburu praktikoa eta argazkiz betea. Bertan lurralde hauetako plater mordoa azaltzen zaizkigu: Alemania, Maroko, Mexiko, Argentina, Bretainia, Libano, India, Italia, Vietnam, Japonia eta Txinakoak.

## ITZALPETIK
**Yolanda Arrieta**

## MILA MAGNOLIA LORE
**Miren Agur Meabe**

Itxura baten haurrentzat dela esan ohi dugu haurrak protagonista direnean, edota liburuak marrazkiz beterik datozenean. Baina ez da hala, hauek horietako batzuk dira, gozatzekoak umearekin batera irakurrriz eta halako ilustrazio ederrak mirestuz, bide nabar esan Leire Urbeltz dela lehenaren marrazkilaria eta Eider Eibar bigarrenarena.

## DISKAK eta DVDak

**BAR PUERTO** Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Josu Eizagirre.
**BERRI TXARRAK** Denak ez du balio.
**ZEA MAYS** Era
**GATIBU** Zuzenean bizitzeko gogoa
**JOSEBA TAPIA** Eta tira eta tunba
**KEN 7** Ortzemuga begietan
**NAHIXAN** Taupadak. Hau Mutrikuko taldea! - Axular Arizmendi,
Axier Garai, Patxi Cabanillas, Aitor Sologaistoa eta Intxixu Valbuena-.
**HARAGIZKOAK** Omar Nabarro eta Rafa Rueda –Poemak eta kantak–.
**ORNITORRINKUS** Judith Montero: Saxoa eta ahotsak; Maialen Lujanbio: letrak eta ahotsa; Xabier Erkizia: nabala elektronikoa, ahotsak eta grabaketa.

# ZORION AGURRA.....

**NORA**

Zorionak! abenduaren 29an 8 urte haundi beteko dituzulako. Muxuak eta besarkadak aitatxo eta amatxoren partez. Jarraitu horrela!

**ANDER**

Zorionak txapeldun! Asko maitxe zaitxun Mutrikuko familixan partez matxo haundi bat eta Aupa Erreala!

**IOSU**

Zorionak osaba! Ze, preparau dezu txokolate berua? Iloba guztiok han izango gera belarritxik tira eitxeko!

**AINHOA, AMAIA eta MANEX**

Zorionak Elorretako Jainaga hirukoteari! Musuak denontzat! Ondo pasau!

**AINHOA eta JON**

Zorionak, Ainhoa, zure hamalaugarren urtebetetzean, 14! Prestatu goxokiak, eta horrela Ionenak berriz zelebratuko ditugu!

**TXOMIN, BEGOÑA eta PEPITA**

Hori ekipua gure etxekua! Suertia da guria, gero, horrelako jefeak edukitxa! Eutsi goixari eta zorionak hiruroi!

**ARITZ**

Zorionak Aritz, urtebete egin duzulako! Mutrikun kamelo poltsakada duzu zain!

**LEIRE eta IÑAKI**

Abenduaren 18an ezkonduko zaretenez, Zorionak familiaren partez. Zoriontsu izan!

**OIHANA eta JON**

Urtarrilaren 10ean ezkonduko zaretela eta, izan dezazuela bizitza zoriontsu eta oparoa! Etxekoak.

interneten ere badago *Kalaputxi*

**www.kalaputxi.blogspot.com**

# Argazki Zaharrak

**ESKOLA PROFESIONALEKO IKASLEAK, 1967ko urrian**

**Goian:**
Jose Antonio Urreisti "Bisteder",
Jose Luis Arrizabalaga "Sabino",
Jose Antonio Maidagan,
eta Jose Antonio Txanbel.

**Erdian:**
Juan Mari Burgaña "Biribil",
Juan Miguel Arreitunandia "Tolon",
Fausto Arrasate,
eta Markel Arizmendi.

**Behean:**
Juan Luis Zabala,
Jose Mari Itsaso,
Iñaki Arrizabalaga"Atila"
eta Koldo Andonegi "Mutxur".

**Elurra, 1970eko urteetan**

# UDAZKEN-NEGUKO EKITALDIAK

**abenduaren 19ra arte**
Anton Mari Urreistiren Margo-erakusketa
Zabiel kultur etxean

**ZINEMA SOZIALAREN EMANALDIAK**
Gaia: Emakume indigenak
**abenduak 17, barixakua**
*13 pueblos en defensa del Agua (63')*
19:00etan Zabiel Kultur Etxean

**abenduak 18, zapatua**
**SANTO TOMAS AZOKA goizean**
XIX. Gabon kontzertua. 20:30etan parrokian.
Musika Eskolak antolatuta.

**abenduak 24, barixakua**
**OLENTZERO** Mutrikuko kaleetan zehar

**abenduak 26, domeka**
**Musika Bandaren Gabonetako kontzertua**

**urtarrilak 1, zapatua**
**Urte Berri. ARNOra igoera.**

**urtarrilak 20, eguena**
Hitzaldia: Kontsumo taldeak nekazaritza ekologikoan
Zabiel kultur etxean, 7etan

## 2010 mendi irteerak

**Burumendi ME (Mutriku), Aurrera MT (Ondarroa), Lumentza ME (Lekeitio), Burdin Kurutz MT (Deba) eta Artibai MT (Markiña)**

**urtarrilak 1** (Burumendi ME)
Mutrikun zehar zeharkaldia
**urtarrilak 16** (Lumentza ME)
Tertanga-Santiagomendi-Untza
**otsailak 20** (Burumendi ME)
Andazarrate-Andatza-Zubieta (Sagardotegia)
**martxoak 6** (Artibai MT)
Mutiloa-Aizkorri Otzaurte
**apirilak 10** (Aurrera MT)
Durango-Atxarte-Untzilaitz-Mañaria
**maiatzak 22** (Burdin Kurutz MT)
Durango-Atxarte-Untzilaitz-Mañaria
**ekainak 5**
Arnoko VII. mendi lasterketa
**ekainak 19** (Lumentza ME)
Ojo Guareña-Dulla-Puentedey (Burgos)
**ekainak 25**
Dina Martxi. Tolosa-Ondarru gaueko mendi-martxa.
**uztailak 1, 2 eta 3** -Leongo mendiak-
- Maraña-Pico de la Cruz-Maraña
- Liegos-Yordas-Liegos
**uztailak 16**
Eibar-Mutriku gaueko mendi martxa
**irailak 11** (Aurrera MT)
Opakua-Bitigarra-Maeztu
**urriak 16** (Burdin Kurutz MT)
Ardanaz-Peña Izaga-Sabelles-Urbizain
**urriak 30**
Gipuzkoako Mendizale Federazioaren
XXV. helduen Ibilaldi neurtua Mutrikun
**azaroak 6** (Burumendi ME)
Itsasu-Arranomendi-Gorospil-Erebi-Dantzarinea
**abenduak 18** (Artibai MT)
Ibilaldia Markiñan zehar

## ODOLA EMATEA

..... **ABENDUAK 17** .....

**arratsaldeko 6etatik aurrera**

**Zabiel kultur etxeko ganbaran**

## ZINE FORUM
## hurrengo filmak

**umorearen zikloa**

**URTARRILAK 14**
Gracias por Fumar

**URTARRILAK 28**
Un Funeral de muerte

**zabielen**
**22:15**
**sarrera doan**

Gure hitzak
esan berriz esan
ez daitezela ahaztu
ez daitezela gal,
elur gainean
txori hanka arinek
utzitako arrasto sail
ederra bezalaxe

Mikel Laboa

**DEBABE**
**udal euskaltegien mankomunitatea**

Sabanika aldapa 4 · 943 603 094
20830 MUTRIKU · eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

*Gabon zorion eta urte berri on!*

**AB AROZTEGIA**

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

Yurrita

KALITATEZKO GASTRONOMIA

# Ondo jan, osasuntsu jan, ...Yurritarekin jan

Plater prestatuetan aukera zabala

EGUBERRI ETA URTE BERRI ON!

yurrita e hijos, s.a.

Ctra. a Ondarroa, s/n
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)
Tel.: 943 603 245
Fax: 943 604 420
www.yurrita.com